

Euskal herrietan komentuz komentu

Nafarroako Orreaga

Roncesvalles o Roncevaux (en euskera, Orreaga) es un nombre que recorrió las memorias literarias del mundo medieval con la leyenda de Roldán. Dotado de un Hospital de Peregrinos, su custodia estuvo a cargo de una comunidad de canónigos de San Agustín. Hospital y Colegiata acumularon con el tiempo un opulento patrimonio, muestra del éxito económico europeo de este centro de hospedaje del Camino Jacobeo.

Orreaga izen handia da, eta Europako historia erdiarotarrean leku entzutetsua izan du, Orreagako gudua eta Karlomagoren bertako porrota gogoratzuz sona handia izan duena. Frantzia, Italia, Alemania nahiz Espainiako literaturek sarritan kantatu zuten han gertatu omen zenaren legenda. Baina Erdi Aro hartan aitorten praktikoagoa ere izan du Orreagak, bertako erromes-ospitale eta ostatuak Santiago Bidetik zetozenei eman ohi ziren laguntzagatik batik bat. Europa osoan izan ziren estimatuak Orreagako bide-zerbitzuak.

Kalonjeak erromesen zerbitzuan (1127)

Orreagan bertan ez baizik, gorago, Ibañetako lepoan eraikitako Salbatore kaperarekin hasten da bertako historia erlijiosoa (1071), mende-erdi bat geroago ondoan Ospitalea ere izango zuena (1127). Eraikinarekin batera erakunde berriak berehala izan zuen zaintzaile eta zerbitzu-bururik.

Jada 1129an bazegoen Ibañetan kalonje agustindarren Priore edo Nagusi bat; pentsa daiteke, beraz, kanonigo edo kalonje-taldea ere bazegoela, erromesei eman behar zitzairen laguntzarekin batera elizako ospakizunak eta otoitza gidatzen zituen. Laster, Ibañetako Ospitalea Orreagara ekarri zen, eta Larrosa Gotzainak ondare aberatsa eman zion (1132). Gainera, Aita Santuak bere babespean hartu zuen fundazioa, baliozkotzat zeukan erakundea zelako, inondik ere (1137). Orreaga

gako eraikin nagusia, elizakoa alegia, 1209an hasita jaso zen, eta berorren azken zaharberritze handia 1940-1945ean burutu da, XX. mendean.

Esan beharra dago antzeko fundazioetan San Agustinen Erregela hartu ohi zela kalonjeen lagunartea modu egokian elkartu eta gobernatzeko. Mendebalde osoan zegoen eskarmentu aberatsagatik, eroso gertatzen zen tradizio beneditarrean sartu ezin ziren elkarte hauek agustindar bihurtzea. Erregela horretaz baliatu ohi ziren Gotzainak katedraletako kalonjeen bizitza elkartasunean arautzeko. Era berean, diozesiko katedralaren osagarriak ziren eliza nagusienak ere (kolegiata deituak, alegia) antzera antolatu ohi ziren (bide batez gogora dezadan ez dela hau nahasi behar XIII. mendetik aurrerako fraideen Ordena agustindarren historiarekin).

Ospitale berritu horren fundatzaileak, Iruñeko Gotzain Larrosak, Orreagako kalonjeen sorrera eta ibilera gidatzeko bere katedraleko zenbait kalonje jarri zituen bertan, hasieratik bertatik (eta ondaretarako Aezkoako elizak eman zitzaizkien, adibidez). Arrakasta handienarekin, ikusiko dugunez. Hasierako lehen mendean katedraleko kalonjeen menpean egon zen Orreagako Kolegiata, harik eta bertako kalonjeek beregaintasun osoa irabazi zuten arte (XIII-XIV. mendeetan). Hala ere, Aita Santua lehenengo (XV. mendeko lehen urteetan) eta Gaztela XVI. mendean saiatu ziren irabazita-



ko Abadearen hautapen-autonomia murrizten: bide horretatik, Antonio de Fonseca izan zen Erregeren erabakizendatutako lehenengo Priorrea (1543).

Inguratu zituen ondasun handiengatik itzal zabala zuelarik, Nafarroako Gorteetan bere eserlekua irabazi zuen Orreagako Abadeak. Kalonje agustindarren eliz lagunarte bezala bizi izan da Orreagako hau orain gutxi arte, eta 1983an bilakatu da, azkenik, diozesiko kabildo sekular, gure parroketakoen apaiz-talde gisara, besterik gabe.

Goraldi ekonomikoa ere

Ospitaleak eta kalonjeek eskaintzen zituzten zerbitzu onek Europako erromes askoren publizitatea ekarri zuten, eta sona horrek herritar banakoen eta hainbat elkarteren Orreagarekiko borondate ongilea irabazi zuen. Euskal Herrian bertan ere halaxe gertatu zen, apurka-apurka ondare handia biltzeraino.

Jimeno Jurio-k gogorazi digunaren arabera, XIII. mendean goraldi ekonomiko paregabea ezagutu zuen Orreagak. Berarentzat emandako lursailak eta elizak Espainia, Italia, Alemania, Frantzia, Eskozia, Irlanda, Ingalaterra edo Portugalen barreiatuta zeuden, Zamora, Londres, Bolonia edo Montpellier bezalako hirietan.

XIX. mendean, Gobernuak, desamortizazioa zela-eta, monasterio eta komentuen ondasunak salmentarako inbentariatu zituenean (1820), Kolegiata hau Nafarroako bigarren eliz jabe handiena zen lurretan, 7.801 sail zituela (inoiz edo beste, halakoak mendi osoak ziren); Irantzu edo Leire-ren aurretik zegoen Orreaga, lehenengo jabe handienak ospitalari sanjoandarrak zirela (13.660 sailekin). Horri guztiari herri-barnetako 91 erai-

kin gehitzen zitzaizkion, gainera. Bestalde, Nafarroatik kanpo, Euskal Herrian Orreagak hainbat ondasun zuen.

Orreagari Gipuzkoan opariak zein esku-zabalki eman zitzaizkion ikusteko, albiste zehatzak daude bilduta (J. M. Mutiloa, 1976). Horien arabera, txundigarria gertatzen da gure eskualdeetara Orreagaren eskumena noraino eta nolako indarrez heldu zen ikustea. Baina ez gara hainbeste harrutuko historiako datu batzuk gogoan baditugu.

Gipuzkoa bere jatorrian eta gero Nafarroako Erreinukoa izana da, eta elizaz ere XIX. mendea arte Iruñeko diozesikoak izan ziren giputz gehienak. Hurbiltasun geografikoak ere badu horrekin zerikusirik, eta Nafarroako bide-sarean ere bada-go partez Gipuzkoa. Oro har, Nafarroatik gidatutako elizgintzak eskueran edo menpean izan zituen Gipuzkoako eliz ekimen berriak –hango gotzaindegi, katedrale, monasterio eta komentuen menpe, alegia–, baita gipuzkoarrek Nafarroako eliz Nagusien babes juridikoa bilatu ohi zutelako ere. Ondorioz, Probintziako hainbat ondasun Orreagaren eskuetara ere joan zen.

Nafarroako artxibo nagusietan eta Gipuzkoako beste hainbeste udal artxibotan daude Orreagako Kolegiatak hemen bildutako ondasunen albiste historikoak. Kostaldean, Hondarribia, Oiarzun, Donostia, Usurbil edo Aginaga aipa daitezke, baina lur-barruan Gesalbizkar gogora daitezke Zegaman edo Artikutza donostiartua.

Honelako ondare-metatzeak, luzarora, Institutu erlijiosoen historiako errakuntza gertatu ziren, desamortizazioak legeztatu eta bortxaz kitatu zuten errakuntza.

Joseba Intxausti